

## **Kopeta eta hatzaparrak**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1991-10-15: 2.

Gizonaren hatzak, berezi, pertsonal eta bakarrak dira; gizakiaren, edo animalia-aren, gorputz guztian agertzen dira, odoletik hasi eta eskuko hatzamarretaraino. Ez dira berdinak diren bi arrasto aurkitzen. Poliziak badaki hori; honek identifikazioak egiteko gehien erabiltzen dituenak, hatzamarretako puntekin uzten ditugun arrastoak dira; erakuslea eta lodia dira adierazkorrenak, horiekin egiten bait dugu gauzak hartzeko pintza; tiro egiterakoan gatua bultzatzeko ere bai: askotan zuzenki arman aurkitzen ez direnak, egon lasai, automobilaren bolantean edo maletako euskarrian agertuko zaizkizue eta! Honetaz kriminala ez da gehienetan konturatzen preso dagoen arte, eta hemen, gartzelan, eta epaileen aurrean, etortzen zaizkio egindakoak burura filme batean bezala. Zinean eta telebistan ikusitakoetatik dakit neuk honetaz hainbeste, egiazko krimenik ez bait dut egin; zizare bat zanpatzetik gora ez naiz gogoratzen; eta apreta edo zapata zolak ere hatz adierazkor bezala detektibe filmetan erabiltzen badira ere, ni orain esanahian nabilenak ez du honekin zer ikusirik, telebistan herenegun entzun-ikusi nuenarekin baizik, zeren eta hor zegoen Amedo mutil prestua aulki xume batetan eserita, makutzik eta bakarrik hizketan, lasai eta urrezko minutu famatuak inork kontatu gabe! Harrigarria, denboraren dimentsioan galdua gizona... esaten, preso zegoela oraingoan, baina epaileek tranpaz bere hatzen arrastoak hartu nahi badizkiote, jai dutela, honetarako behatzak moztu eta hartu beharko dizkiotela! Palazion, astero txandaka preso euskaldunak ikusten ditugun bezala, telebistarako hartu zioten egiazko, aktualitatezko, filmean.